

Nazionalismoa eta liburutegiak aztergai, 'Jakín' aldizkarian

Argia ikusi berri duen urteko hirugarren aleak 172. zenbakia osatzen du iruñea. Hiru artikuluk osatzen dute Jakín aldizkariaren aurtengo hirugarren zenbakia, 172.a. Hainbat gai ezberdin lantzen dira Gerardo Luzuriaga eta Roberto Kerexetaren, Julen Zabalo eta Jean Pierre Massiasen eta Xabier Agirre Urteagaren artikuluk horietan.

Lehenengo artikuluan, Gerardo Luzuriagak eta Roberto Kerexetak azken bi urteotan Euskal Herriko liburutegi digitalen panoraman agertu diren proiektu berriak aurkezten dituzte. Julen Zabalo eta Jean Pierre Massiasen, bigarren artikuluan, Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen nazio gatazka luzearen auziari heltzen diote. Hirugarren artikuluan, azkenik, Xabier Agirrek nazionalismoaren auzia filosofia politikoaren ikuspegitik aztertzen du, auzi filosofiko zabalago baten zatia dela erakusteko asmoz. Egunen gurgpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak dakartzate Xabier Gantzarainek Artean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Uxue Alberdik Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan eta Josu Larrinagak Glokalia atalean. >d.n.